

ERREGELAMENDUA ETA EBAZPEN OROKORRAK REGLAMENTO Y RESOLUCIONES GENERALES

Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua erreformatzeko proposamena (Osoko Bilkuraren erabakia) (09/.09.03.01.0003)

2012ko apirilaren 19an eta 23an egindako osoko bilkuran hartu zen erabakia betez, agintzen dut Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren erreforma.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cia

NIK, MIKEL UNZALU HERMOSAK, EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIKO LEHEN IDAZKARI NAIZEN HONEK,

ZIURTATZEN DUT

Eusko Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 19an eta 23an egindako osoko bilkuran, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren erreforma onetsi du, idazki honekin batera doakizun testuaren arabera.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2012ko apirilaren 23an.

Mahaiko lehen idazkaria, Mikel Unzalu Hermosa. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Arantza Quiroga Cia

EUSKO LEGEBILTZARRAREN ERREGELAMENDUAREN ERREFORMA

Zioen azalpena

2012ko otsailaren 9an, Eusko Legebiltzarrak onetsi egin zuen euskal politikariaren eta kargu publikodunaren estatutuari buruzko ebazpena. Ebazpen hori, gehiengoaren adostasun politikoaren fruitu izan dena, Eusko Legebiltzarraren Erregelamendura eraman behar da.

Erreforma honen helburua da kargu parlamentarioaren titularra Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzea langabeziako kotizazioaren eta prestazioaren ondorioetarako.

Lehenengo artikulua. 3. paragrafo berria sortzen da Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduko 12. artikuluan; ondorioz, era honetara geratzen da aipatutako artikulua:

- "1. Legebiltzarkideek diru kopuru bat jasoko dute, beren eginkizuna eraginkortasunez eta duintasunez bete ahal izateko.
2. Eskubidea izango dute orobat beren eginkizuna betetzeko ezinbestekoak diren laguntzak, franki-

Propuesta de reforma del Reglamento del Parlamento Vasco (Acuerdo del Pleno) (09/.09.03.01.0003)

En ejecución del acuerdo adoptado por el pleno ordinario celebrado los días 19 y 23 de abril de 2012, se ordena la publicación de la reforma del Reglamento del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia

MIKEL UNZALU HERMOSA, SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO,

CERTIFICO

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada los días 19 y 23 de abril de 2012, ha aprobado la reforma del Reglamento de la Cámara, con arreglo al texto del anexo adjunto.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 2012.

El secretario primero de la Mesa, Mikel Unzalu Hermosa. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga Cia

REFORMA DEL REGLAMENTO DEL PARLAMENTO VASCO

Exposición de motivos

Con fecha 9 de febrero de 2012, el Parlamento Vasco aprobó la resolución sobre el estatuto del político y del cargo público vasco. Dicha resolución, fruto de un consenso político mayoritario, debe tener su traslación al Reglamento del Parlamento Vasco.

Esta reforma pretende la inserción del titular del cargo parlamentario en el régimen general de la Seguridad Social a efectos de cotización y prestación por desempleo.

Artículo primero. Se crea un nuevo apartado 3 en el artículo 12 del Reglamento del Parlamento Vasco, quedando dicho artículo de la manera siguiente:

- "1. Las parlamentarias y parlamentarios percibirán una asignación económica que les permita cumplir eficaz y dignamente su función.
2. Tendrán igualmente derecho a las ayudas, franquicias e indemnizaciones por gastos que sean



ziak eta gastuen ordainak jasotzeko, bai eta legegintzaldiaren amaierakoak ere.

3. Halaber, kalte-ordain bat jasoko dute karguari uko egin eta hura uzteagatik, hileko ordainsari baten kopurukoa, behin bakarrik eta betiere karguan gutxienez urtebetean aritu badira, salbu eta hilabete baino gutxiagoko epean ordainsari publiko bat jasotzen hasten badira.
4. Legebiltzarkideek jasotzen dituzten ordainsari guztiak izaera orokorreko zerga-arauetara lotuta egongo dira".

Bigarren artikulua. 4. paragrafoa sortzen da Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduko 13. artikuluan, honela idatzita:

- "4. Legebiltzarkideen Gizarte Segurantzako kotizazioak Gizarte Segurantzaren arloko legeria orokorrari lotuta egongo dira, eta orobat Legebiltzarrak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekin sinatutako hitzarmen bereziari. Babestuko diren kontingentziak arau horietan zehaztutakoak izango dira".

Hirugarren artikulua. Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduko 36. artikuluan, 1.4) paragrafoan, "igarotze-ordaina" esapidearen ordez "trantsizio-ordaina" jarriko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa

Gizarte Segurantzako legeria orokorrak legebiltzarkideen langabezia-prestazioa estaltzea aurreikusten ez duen bitartean, karguari uko egiten diotenean edo agintaldia bukatzen zaienean aldi baterako prestazio ekonomiko bat jasoko dute legebiltzarkideek, beren oinarritzko soldataren hileko ordainsari baten % 40ko kopurukoa.

Bigarrena

Prestazio hori hileroko ordainduko da, eta hiru hilabeteko iraupena edukiko du agintaldi parlamentarioan aritutako urteko bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko urte-zati bakoitzeko, eta gutxienez hiru hilabete eta gehienez hamabi hilabete ordainduko dira.

AZKEN XEDAPENA

Erreforma hau Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

indispensables para el cumplimiento de su función, así como los de transición por fin de legislatura.

3. Igualmente percibirán, por una sola vez y siempre que hayan desempeñado el cargo al menos durante un año, una indemnización en caso de cese por renuncia equivalente a una retribución mensual, excepto en el caso de pasar a percibir una remuneración pública en un plazo inferior a un mes.
4. Todas las percepciones de las parlamentarias y parlamentarios estarán sujetas a las normas tributarias de carácter general".

Artículo segundo. Se crea un nuevo apartado 4 en el artículo 13 del Reglamento del Parlamento Vasco, con el siguiente texto:

- "4. Las cotizaciones a la Seguridad Social de los parlamentarios y parlamentarias estarán sujetas a la legislación general en materia de Seguridad Social y al convenio especial suscrito por la Cámara con la Tesorería General de la Seguridad Social. Las contingencias a cubrir serán las determinadas por dicha normativa".

Artículo tercero. En el artículo 36, apartado 1.4.º, del Reglamento del Parlamento Vasco, la expresión "indemnización de transición" es sustituida por "remuneración de transición".

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera

En tanto en cuanto la legislación general de la Seguridad Social no prevea la cobertura de la prestación por desempleo de parlamentarios y parlamentarias, estos percibirán, en caso de renuncia o de extinción del mandato, una prestación económica temporal equivalente al 40 % de una mensualidad del salario base de parlamentario.

Segunda

Dicha prestación se abonará mensualmente con una duración de tres meses por cada año de desempeño del mandato parlamentario, o fracción superior a seis meses, con un mínimo de tres meses y un máximo de doce.

DISPOSICIÓN FINAL

Esta reforma entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

